

11 herri, hamaika esperientzia desberdin



Aduna

Eskola: Adunako Herri Eskola.
Ikasle kopurua: 50 ikasle.



Gauza asko egin eta ikasi dituzte: landare batzuk landatu, ura aurrezteko marrazkiak, Askizura, Leizaran eta Ibaiederrera irteera. Eskolako Txoko Berdeari ere bultzada bat eman diote lehiaketa antolatuz.

Udal Batzarra: Eskola guztia joan zen alkate andreari egindako lanak azaltzera eta launaka aurkeztu zituzten. Primeran egin zuten!



Anoeta

Eskola: Anoetako Ikastola
Ikasle Kopurua: 282 ikasle.
Iturriak errebisatu, ibaia aztertu eta saneamendu sarea ezagutu zituzten beste hainbat ekintzaren artean. Obrak zirela eta estolderia tapak irekita zeuden eta bertatik zihozaren zikinkeriak ikusi zituzten; erabat harrিতa geratu ziren!



Udal Batzarra: Udalak zoriendu egin zituen egindako lanarengatik, eta azterketa zehatzten emaitzak eskatu zizkieten baliagarriak zirelako Udalarentzako.



Berastegi

Eskola: J.A. Muñagorri.
Ikasle kopurua: 103 ikasle.
Uraren astea antolatu zuten: tailerrak, gymkana, mozzorroak, Etiopiako Wukro herriaren egoera ezagutu zuten... eta urteroko bigarren eskuko azokatik ateratako dirua bertara bidaltzeko konpromisoa hartu zuten.



Udal Batzarra: Aurreko Ikasturtean baino ikasle gehiago animatu ziren, oso txukun azaldu zituzten egindako lanak eta alkateak zoriondu egin zituen. Lan bikaina!



Berrobi

Eskola: San Andres.
Ikasle kopurua: 56 ikasle.
Lan eta irteera pila bat egin dituzte: txikienek uraren koadernotxo bat sortu dute; LHkoek arrainak aztertu; ur kontsumoak, ur depositua ezagutu; Arriarango urteigira bisita; espeleologia Debako koba batzuetan... Primeran pasa dute!
Udal Batzarra: Eskolako ikasle guztiak joan ziren Udal Batzarrera eta ur baliabideak hobetzea proposatu zieten (ur zikinak tratatu, iturriak zaindu eta konpondu...)



Gertaera bat: Erreterian izandako jasagarritasunerako hezkuntzako XIX. Topaketetan aurreko ikasturtean martxan jarritako "Lurbiran" proiektua aurkeztu zuten. Primeran egin zuten eta entzuleek oso positiboki baloratu zuten. Lan ederra!



Bidegoian

Eskola: Txinkorta LHI.
Ikasle kopurua: 54 ikasle.
Uraren hainbat aspektu ezberdin ezagutu zituzten (iturriak, ibaia, estolderia, kontsumoa...). Esperientzia polit bat ere izan zuten: Bidaniko "Usarraga Zaharra" baserrian bizi den Pascuala Rezolak bere gazte garaian uraren egoera nolakoa



zen azaldu zieten: errekek ur gehiago zeramala, ura bertatik eskuratzen zutela, etab.

Udal Batzarra: Eskola guztia joan zen eta beste proposamen batzuen artean Eskolan kontadorea jartzea eskatu zuten, beraien kontsumoa kontrolatu ahal izateko.



Ibarra

Eskola: Uzturpe Ikastola.
Ikasle kopurua: 290.
Ur gehiegi kontsumitzen dugula konturatu dira hainbat azterketa egin ondoren, eta ibaia kanalizatuta egoteak dituen ondorioz jabetu dira. Lan asko egin dute aurten. Segi horrela!



Udal Batzarra: Ingurumen Batzordeko ordezkariak aurkeztu zuten lana, eta nahiz eta hasieran urduri xamar egon, primeran aritu ziren. Bukaeran alkatesarekin solasean aritu ziren.



Ikaztegieta

Eskola: Ikaztegieta LHI.
Ikasle kopurua: 63.
Gertaera bat: Urarekin hainbat esperimentu egin zituzten eta Leitazaranera ere irteera bat egin zuten.



Udal batzarra: Ziklo bakoitzeko ikasle bat joan zen eta herritarrek sentsibilizatzeko kanpaina egitea proposatu zioten alkatesari.



Irura

Eskola: Irurako Ikastola
Ikasle kopurua: 155.
Gertaera bat: Ibaia aztertu dute, iturriak, inkestak egin dizkiete herritarrei eta



konturatu dira herritarrek informazio gutxi daukatela eta Udalari aholku orriak banatzea proposatu diote.
Udal Batzarra: Udaletxera gerturatu ziren ikasleak, alkatesari kurtsoan zehar egindako lana aurkeztu zioten. Beren lana zoriondu ondoren, hamaiketako goxo batera gonbidatu zituen. Horrela bai ondo!



Lizartza

Eskola: Juan XXIII LHI.
Ikasle kopurua: 70.
Interesgarrietakoa: "Nigerreko tantak" kanpaina. Zuhaitz erraldoi bat jarri zuten eskolako leihoetan. Ikasle bakoitzak ur tanta bat apaindu eta etxera eraman zuen saltzeko. Bildutako dirua UNICEFeko kanpainen laguntzeko erabiliko dute.



Villabona

Eskolak: Jesusen Bihotza Ikastola, Fleming.
Ikasle kopurua: 838.

Interesgarrietakoa: Araztegia ezagutu, ibaia eta iturriak aztertu, argazki lehiaketa antolatu eta hainbat ekintza interesgarri burutu zituzten Villabonako ikasleek.



Gertaera bat: Bi ikastetxeak elkartu ziren ikasle foroan eta zikloka elkarturik proposamenak eta konpromisoak amankomunean jarri zituzten, gero Udalera txosten bateratu bat eramateko. Lana gogoz egin eta gero, primerako hamaiketako dastatu zuten.

Udal Batzarra: ikasle asko gerturatu zen Udaletxera eta egindako lana aurkeztu zuten. Uixubiko iturriari botoia jartzeari buruz hitz egin zuten, aztertuko zutela, baina emari naturala izatean zailtasunak izan ditzakeela emaria eteteak.



Zizurkil

Eskolak: Jesusen Bihotza Ikastola, P.M. Otaño Herri Eskola, San Millan Eskola.
Ikasle kopurua: 219.

Interesgarrietakoa: Ikastetxeetan hainbat neurri hartu dituzte ura zaindu eta kontsumoa gutxitzeko: zisternetan ur botilak sartu; liburuxka bat sortu bonbaren bat edo iturriren bat egoera txarren badago apuntatzeko eta dagokionari abisatzeko; iturriak kolore ezberdinetako gometekin markatu ur jarioaren arabera; ekonomizadoreak jarri, eta abar.



Gertaera bat: Ikasle Foroa egin zuten hiru eskolek Udalera proposamen bateratu bat eramateko. Proposamen eta konpromiso ugari atera ziren eta bozketa egin zuten garrantziaren arabera sailkatzeko.

Udal Batzarra: Dauden iturriak aztertu eta konpontzeko eskatu zitzaion Udalari eta aztertuko zuela erantzun zuen Udalak. Hondatu ahala konpontzea proposatu zuten Udalak, denak berritu ordez, aurrezteko sistemak ezarritz.

Ondorioak, proposamenak eta konpromisoak

Orokorrean, Uraren gaia landu duten guztiek hurrengo ondorioak atera dituzte: ur gehiegi kontsumitzen dutela eta neurri bixiekien asko aurreztu daitekeela; ibaia askotan zabortegi bezala erabiltzen dela eta ekosistema garrantzitsua izaki zaindu egin behar dela; aurrerantzian etxetako ura lbiurreko urtegitik iritsiko dela eta ur zikin gehienak Adunako araztegiara eramango dituztela; askotan herriko iturriak ez direla behar bezala zaintzen; herrialde askotan urarekin arazo larriak dituztela (gaixotasunak, bila joan beharra...), eta abar. Ondorioz, hurrengo proposamenak egin dizkiete Udalei: Iturriak txukun mantendu; eteteko sistemak jarri eta presioa gutxitu; ibaiak garbitu eta zaindu ahalik eta obra gutxien eginez; isurketak hobeto kontrolatu eta legea betetzen ez dutenei isunak jarri; Udal zerbitzuei dagokienez, ura aurrezteko sistemak ezarri eta lorategiak ureztatzeko eta kaleak garbitzeko euri ura erabili; sentsibilizazio kanpainak martxan jarri; saneamendu sarea konpondu ur isurketak kontrolatuz; garapen bidean dauden herrialdeei lagundu, etab. Eta amaitezko, umeez eta gazteek konpromiso batzuk hartu dituzte, garrantzitsuenak: ura aurrezteko ohiko neurriak hartu (hortzak garbitzerakoan kanila itxi; bainatu ordez dutxatu; dutxa azkarrak hartu; ontzi garbigailua eta arropa garbigailua toperaino bete...); beharrezkoa den ura erabili eta ahalik eta gutxien zikindu (olioa arraskatik ez bota; ez erabili komuna zaborrontzi bezala; xaboi gutxiago erabili...), ibaia zaindu; herriko baliabideak ongi erabili; zisternetan eta kaniletan ura aurrezteko sistemak ipini, etab. Hala ere, herri bakoitzean proposamen eta konpromiso zehatzak atera dira. Lan bikaina egin da eta hemendik aurrera konpromisoak betetzen joatea espero da.

Tolosaldeko II Topaketak



eta aurreko ikasturtean gai hau lehengo aldiz lantzen Tolosalde-kook, Urola Garaikoekin batera, aitzindari izan ginenez, gure esperientziak kontatu genituen.

Eta datorren ikasturtean zer?

2010/2011 Ikasturtean Elikadura izango dugu ardatz nagusi, eta gaiarekin zerikusia duten hainbat aspektu aztertuko ditugu, beti ere ingurumena oinarri hartuz, esaterako, elikadura osasuntsua eta, horri lotuta, elikagaiak ekoizteko moduak, nekazaritza ekologikoa delarik horietako bat. Era berean, erosketak egiteko garaian kontuan izateko, produktuen jatorriak eta ekoizpen moduak ingurumenaren iraunkortasunean duten eragina. Halaber, elikadura moduek eta ohiturek bertako bioaniztasunaren etorkizunean izan dezaketen eragina eza-gutzea. Eta ondorengo gai hauek ere jorratuko dira: bertako produk-tuen kontsumoa; hazi transgenikoak; etiketen esanahien azterketa; merkatu librea eta ekitate gabezia; bidezko merkataritza; eta abar.



Ibiurreko urtegia eta Adunako araztegia

Uraren inguruan bi azpiegitura garrantzitsu daude martxan Tolosaldean: Ibiurreko urtegia eta Adunako araztegia.

Ibiurreko urtegiak Tolosaldeko 60.000 biztanle hornituko ditu, zehazki Ikaztegieta, Alegi, Altzo, Tolosa, Ibarra, Anoeta, Irura, Villabona, Asteasu, Zizurkil eta Adunakoak; eta Andoain ere hornituko du. Dagoeneko hasi dira pixkanaka herri batzuk Ibiurreko ura jasotzen eta abuzturako aipatutako herrietara iristea espero da.

Adunako Araztegia

Adunan Oria Erdialdeko hondakin uren araztegi berria egiteko lanak hasi dituzte. Araztegi honek 19 udalerriri emango dio zerbitzua, eta 2011n martxan egotea espero dute. Hain zuzen ere, Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Andoain, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Legorreta, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil herriei emango die zerbitzua Adunan egingo duten araztegi berriak, orotara, 60.658 biztanleri. Ur zikinak araztegiara eraman ahal izateko 34 kilometroko kolektorea egiten ari dira. Martxan jartzen denean ingurumen onurak nabarmenak izango dira.

Joan den ikasturtean, eskualdean Eskolako Agenda 21 proiektuari bultzada handi bat emateko asmoz, aurreneko topaketa antolatu zen. Hezkuntza proiektu honetan, 12 herritako 25 ikastetxeren inplikazioa lortu da, eta gaur egun 6.200 bat ikaslek, 200 baino gehiago irakaslek eta ehunka gurasok parte hartzen dute. Eskola desberdinetako partaideek elkar ezagutzeko eta beraien esperientziak konpartitzeko asmoz, aurten bigarren edizioa egin dugu. Tolosako Musika Eskolan egin zen, maiatzaren 19an. Bertan, 140 ikasle eta irakasle inguru elkartu ziren, denak ikasgai bera lantzeko asmoz: ikasturte honetan landu duten *URA* gaiaren inguruan udalerri ezberdinetan ateratako ondorioak, proposamenak eta konpromisoak eztabaidatu eta amankomunean jarri zituzten. Tolosaldeko Eskolako Agenda 21 programako partaide guztiak talde txikitan banatu ziren. Ikasturtean zehar bakoitzak bere eskolan izan dituen esperientziak trukatu zituzten eta landu duten gaiaren inguruko galderei erantzun zieten. Bestalde, asmo nagusietako bat herrien arteko harremanak sendotzea eta elkar ezagutzea izan zen. Primeran pasa zuten eta irakasleek oso positiboki baloratu zuten esperientzia.

Errenteriko jasangarritasunerako hezkuntzako XIX. Topaketak

Errenterian izandako Topaketetan parte hartu zuten TIZeko ordezkariak eta Berrobiko San Andres Ikastetxeak. Ekitatea zuenez ardatz nagusi,



Eskolako Agenda 21

Tolosaldea 2009/10
ekitate gabezia

Aduna-Anoeta-Berastegi-Berrobi-Bidegoian-Ibarra-Ikaztegieta-Irura-Lizartza-Villabona-Zizurkil

Ura, altxor urria



Guk bakarrik ez dugula ura erabiltzen jabetu dira (landareek, animaliek...).

Ekitate gabezia; haur afrikar baten eskutitzaren bitartez, toki batzuetan ez dutela urik jabetu dira.

• Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. Mailakoek ibaia aztertu dute, bere ekosistemaren garrantziaz konturatu dira eta herriko ibaia edo erreka ezagutu dute.

Etxean inkesta baten bitartez, uraren kontsumoaz jabetu dira. Eguneroko jardueretan kontsumitzen den ura aztertu eta neurtu dute. Ingurunea aztertu dute, beste herrialde batekoarekin alderatuz, uraren garrantziaz jabetzeko. Beste herrialdeetako bi umeren testigantza irakurri dute, egunerokoan urarekin duten arazoa deskribatzen duena.

• Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoek ere ibaia aztertu dute.



11 Herritako ume eta gazte elkarrekin lanean, etorkizun jasangarri eta bidezkoago baten alde

2009-2010 ikasturtean Tolosaldeko haurrek eta gazteek Uraren gaia landu dute Eskolako Agenda 21 programaren bamean. Ura altxor urria da, funtsezko elementua bizitzarako, eta giza garapenerako oinarri nagusietako bat. Baina gizateriaren zati handi batentzat ez dira oinarri horiek oraindik bermatzen. Uraren kutsadura eta ekosistemen suntsipena gora egiten ari diren honetan, nabarmen geratzen da zer eragin duten munduko hainbat eta hainbat pertsonarengan klima-aldaketak, hondamendi naturalek, pobrezia, gerrak, globalizazioak, biztanleriaren hazkundeak, urbanizazioak eta gaixotasunek. Helburu nagusia izan da ikasleek herrian uraren egoera aztertzea; uraren kudeaketa sistema ezagutzea; uraren inguruko arazoez jabetzea; eta jabetzea, era berean, zergatik den garrantzitsua ura oinarri duten ekosistemak zaintzea eta ur aurrezte. Udal Batzordeetara eraman dituzte lanaren emaitzak eta hausnarketaren ondorioz adostutako konpromisoak eta proposamenak. Denera, 2.215 ikaslek hartu dute parte proiektu honetan.

Zer da eskolako agenda 21 lantzea?

Eskolako Agenda 21 konpromiso eta ekintza-plan bat da, ikastetxearen eta inguruaren jasangarritasunaren eta kalitatearen alde hezkuntza komunitateak aurrera eramaten duena. Eskolako Agenda 21ek ikasleei beren ingurumen hurbilaren arazoa aztertu eta ulertzea ahalbidetzen die eta hiritar gisa bidezkoagoa eta ekologikoki jasangarriagoa izango den gizarte baten alde aritzeko prestatzen ditu, udal kudeaketan partaidetza bultzatuz.

Aurten egindako lana

Ikasturte honetan **Uraren gaia** landu dute, ikasleek eskolako eta herriko diagnosi bat egin dutelarik, arazo larrienak zeintzuk diren identifikatuz. Aurreko urtean Ekitate Gabeziaren gaia landu zuten, ildoari jarraituz Uraren arazoa mundu mailan ezagutu dute, gizakiongan dituen ondorioak aztertuz.

Herriaren diagnosis egiteko, Tolosako Ingurumen Zentroak zikloa aspektu edo ezaugarri bat hartu eta proposamen bat egin die:

• Haur Hezkuntzakoek, panel baten bidez, etxean, naturan eta kalean uraren erabilera identifikatu dute. Nola gastatu ur gutxiago ere ikasi dute.

Kaleko kontsumoa identifikatu eta ziklo urbanoa ezagutu dute (herriko iturriak, es-tolderia, garbi-tokiak...). Kontsumo pertsonala aztertu dute.

• Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek etxeko ur ordainagiria aztertu dute eta bertan dauden kontzeptuak ulertu dituzte. Egutero etxeko bakoitzak batez beste zenbat ur kontsumitzen duen jakin dute. Jakin dute zertarako erabiltzen den ura herrian eta behar bakoitzean ze ur erabiltzen den ere bai (edangarria, berrerrabiltakoa...).

Zertan kontsumitzen den ur gehien, herritar bakoitzeko zenbat ur kontsumitzen duen herriak, etab. ezagutu dute.

• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek ibaiko ezaugarri fisiko eta kimikoen azterketa egin dute: landaredia eta fauna; gizakiaren inpaktua paisaian eta ekosisteman; paisaiaren eraldaketa. Galdetegia egin diete ura erabiltzen duten sektoreetako langileei.

Ura eta berdintasun gabezia. Uraren kudeaketa orokorra aztertu dute gure herrialdean eta beste herrialde txiro batekoarekin alderatu dute. Konkretuki, emakumeak uraren garraioarekin duen lotura aztertu dute eta ondorioak atera dituzte.

• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoek Milurteko helburuak aztertu dituzte, bereziki urarekin zerikusia duen 7. Helburua: egin diren lorpenak; nola dagoen banatuta ur beharra munduan; arazoarekin lotuta dauden beste hainbat faktore aztertu dituzte (osasuna, elikadura, etab); ura eta generoa...

Simulazio joko baten bitartez, gela munduko goi-bilera bihurtu dute, eta konturatu dira adostasuna eta konpromiso batzuetara iristeko zailtasunez. Inkesta egin diete herritarrei Milurteko Helburuen ezagupenaren inguruan.